

XXX. Euskal Herriko Eskulangintza Azoka



Ereintza Elkarteko Eskulangintza Taldea

Sarrera

Ereintzatarrok gure elkartearen 50. urteurreneko ospakizunetan bete-betean murgildurik gauden 2008 urte honetan, eskulangintza taldeari data biribil bat ere egokitu zaigu: Euskal Herriko Eskulangintza Azokaren 30. edizioarena, hain zuzen ere, maiatzaren 1etik 4ra arte, ostegunetik igandera, luzatu dena.



Beti bezala ere, Errenteriako Udalaren, Gipuzkoako Foro Aldundiaren eta Kutxaren laguntzarekin ospatzen den azoka honek, Udal Merkatu Zaharreko "Jose Luis Caso" areto berritua izan du bere kokagune. Bestalde, hasierako asmo eta planteamenduak fideltasunez jarraituz Euskal Herri guztiko artisauak izan dira bertan, egun gure artean dauden artisau-langintza interesgarrienak bildu eta erakutsi nahian.

Gai berezia: azokaren 30 urte

Orain arte, Azokako urteroko gai berezia hautatzeko, artisautzan erabiltzen diren materialak hartu izan dira kontuan. Bestalde, orain arte parte hartu duten artisau guztiak Euskal Herrikoak izan dira. Aurten ordea, data biribil hau aprobetxatuz, edizio berezia egin nahi izan da, gure Udalarekin harreman

estua duten herri eta eskualdeekin osatua, horien guztien artean Lousada herriko eta Caceres probintziako artisau ordezkariak bana gonbidatuz.

Lousada. Herri senidetua

Lousada, Portugaleko udalherri bat da, Sousa Bailaran kokatua. Eskualde honetako artisautzak eta produktuek oso ongi islatzen dituzte bertako sustrai eta tradizioak. Saskigintza, ehungintza, brodatuak, zeramika, zilargintza eta abar, bertako eskulangintza-ren adibide ugariak dira.

Handik etorritako artisauen artean hauek azpimarratu nahi genituzke:

- ZILARGINTZA. José Rui Gimaraes de Oliveirak zilarraz gain, urrea eta harri bitxiak ere lantzen ditu, betiere artisau-bitxigintza moldeak errespatatuz bere pieza ugari eta ederretan. 2007 urteko artisautza-saria jaso zuen Lousadan bere lanagatik.

- BRODATUAK. Laura Meira Coelho anderea, Portugalgo artisau-jarduerarik ezagunenetako baten, hots, brodatze-lanen eta, oro har, ehungintza-lanen ordezkari bikaina, bere jostun-lan aberatsekin.



Cáceres. Lurralde gonbidatua

Caceresen kasuan berriz, eta gure arteko adiskidantza seinale, probintziako ordezkari bat ekarri nahi izan dugu, Erreteriarekin senidetu zen lehen herria lurralde horretako Monroy izan baitzen, nahiz eta bertatik artisaurik ekartzetik ez izan.

Horren ordez ordea, Cacerestik etorritako ordezkari goi-mailakoa izan dela esan genezake. Lau artisau kalitate handiko lana aurkeztu dute: Ceclavín herriko Julián Simónen buzingintza tradizionalaren eredu bikainetik hasi, eta Trujillo herriko Eduardo Pablos otarregilearen zume-otargintza fin eta ugariraino. Baina zerbait azpimarratzekotan, hauek gogoratu nahi genituzke:

- **KOBRE GALDARAGINTZA.** Manuel Torrejón lanbide honetan aspaldian aritzen den sendi bateko laugarren belaunaldiaren ordezkaria da. Guadalupe Monastegi famatutako atek bozeltzera etorritako familia batek ekarri omen zuen Italiatik lanbide hau, orduz gerotik herriko artisautza-jarduera ezaguna bihurtuz. Manuelek lortutako sarien arteak nabarmentzeko da Extremadurako Juntak, 160x80 zm. neurtzen zuen pegar erraldoi batengatik, VIII. Artisautza Lehiaketan emandako Sari Berezia.

- **MUSIKA-TRESNA TRADIZIONALAK.** Gizon humoretsua eta musikagile herrikoaren eredu bikaina dugu Pedro Garrido txirularia. Aitonak bultzaturik hasi zen lanbide honetan, zazpi urte besterik ez zituela, berekin azienda mendialdera eramaten hasi zenean. Han egin zituen kainaberazko lehen txirula txikiak. Baina teknika hobetzen hasi zenez gerotik, beste egur motak erabiltzen ditu: saugoa, lizarra, artea edo gaztainondoa. Halere, olibondoaren egurra du gogokoan, soinu eta gogortasun berezia ematen baitzikio txirulari. Danbolinak ahuntzaren larruz egiten ditu.

Kanpotik etorritako artisauez gain, aurtengo azokak bere ohiko kalitateari eta berritze mailari eutsi diola baieztatu dezakegu. Aurtengoa, langintza eta produktuen kalitate eta barietatea kontuan hartuta, azken urteotan egindako azokarik deigarrienetakoa izan dela esan genezake. Etorritakoen artean aipatzekoak dira zenbait tallerretan erakutsitako lanak: papergintza, forja-lanak edo beira puztuarena, esate baterako.

Bestalde, imajinazioz betetako lanak ere aipa ditzakegu, zeramikaz edo fimo oreaz egindakoak, goma-espumazko txotxongiloak edo lore idortuz egindako paisaiak adibidez.

Jesús Hospitaler



Zabaltze unea

Azokaren zabaltze-ekitaldi ofiziala, maiatzaren 1ean, osteguna, egin zen, goizeko 12tan. Lone Idiazabalek, antolakuntza-taldearen izenean egindako aurkezpen laburraren ondoren, Foru Aldundiko Berrikuntza eta Jakintzaren Gizartearen Departamentuko Diputatua den José Ramón Guridi jaunak hartu zuen hitza. Aurten ospatzen diren bi data garrantzitsuak gogoratuz, Ereintza Elkarteari eta Azoka berari ere, bizitza luze eta oparoa opa zien, eta mota honetako elkarteetako borondatezko lan eskergaitza goraiatu zuen. Ondoren Erreteriarako Alkateak, Juan Carlos Merino jaunak, hitz egin zuen, kanpotik etorritako artisauei ongi etorri berezia emanaz, Portugalgo Lousada eta Frantziako Tulle hiri seniduetako zenbait agentari ondoan zituela. Ekitaldia bukatzeko, Kepa Oliverik omenaldi sentikorra jaso zuen antolakuntza-taldeko kide, eta aldi berean lagun zaharren partetik, urte hauetan guztietan egindako lanarengatik. Jarraian, agentari eta gonbidatu guztiek (horien artean bere babesa ematen digun Kutxako ordezkaria, Iñaki Rekalde jaunak, eta herriko hainbat zinegotzi eta kultur ordezkari) azokaren instalazioak bisitatzeko aukera izan zuten.

Jesús Hospitaler



Artisau parte-hartzaileak, langintzak eta geografia jatorriak

Edizio bakoitzean parte hartuko duten artisuen zerrenda egiterakoan, beti saiatzen gara ahalik eta ordezkartza onena lortzen; bai produktuen kalitate eta aniztasunaren aldetik, baita langintza berri eta interesgarrietatik ere. Bestetik, gure lurraldeetako nolabaiteko geografi ordezkartza gorde nahi izaten dugu. Hau guztia orekatzea ez da erraza izaten, kon-tuan izanik azokaren barrutiko espazioak artisauen kopurua mugatu beharra dakarrela.

Nolanahi ere, aurtengo artisuen ordezkartza azken urteetako onenetakoen artean dagoela esan dezakegu. Hona hemen langintza eta geografia jatorriaren arabera sailkapena:

Zura: Eskultura eta taila (3); jostailuak (2); landa tresneria (2); bastoiak (1); gaztain eta zume otarregintza (2); musika-tresna herrikoiak (1); zur torneatua (1); maketak (1).

Burdina eta metalak: forja lanak (1); kobrezko galdaragintza (1); bitxigintza (3); esmaltegintza (1).

Buztina eta harria: buztigintza eta zeramika (4); bitxigintza zeramikan (1); harzuriaren zizelketa (1); miniaturrezko harriak (1);

Beira: beira termogaldatua (2); kanaberaz puztutako beira (1); beira grabatua (1).

Ohialkiak: ehungintza eta brodatuak (2); hamaken langintza (1); seta margotuak (1); serigrafia(1); euskal janzkiak (1); espartingintza (1).

Larrua: pilotak (1); larrugintza (1); abarkak (1); oinetakoak (1).

Papera eta kartoia: papergintza (1); koadernaketa artistikoa (1); mache paperaren artisautza (1).

Bestelakoak: moda osagarriak (1);lore idortuak (2); kodizeak eta kaligrafia (1); txotoxongiloak (1); fimo orearen artisautza (1); kosmetika (1).

Elikadura: taloak (1); erlazaintza (1); garrapintuak (1); konfiteritza (1).

Geografia jatorriaren arabera berriz: Portugaldik (4), Cacerestik (4), Gipuzkoatik (21), Arabatik (3), Bizkaitik (7), Nafarroatik (13) eta Ipar Euskal Herritik (3) etorri dira; guztira 55 artisau. Hauetatik hogeiren bat berriak, hau da, lehen aldiz Errenteriako Azokara etorritakoak.

Azokan eman diren sariak

Azokaren azkeneko urtetan, Stand Onenaren Saria eman izan zaio, bere lanbideko lehengaiak edo amaitutako produktuak erabiliz, kalitate estetikoaren arabera standik onena aurkezten zuen artisauari. Aurten berriz, zenbait artisauen iradokizunak bilduz, beste sari mota bat ere ematea erabaki da: **Artisau Lanaren Kalitatearen Saria** hain zuzen. Honek jakina, orain arte izandako irizpideak aldatzea ekarri du.

Ikerketa eta diseinua bultzatze asmoz sortu dan sari berri honen oinarriak, honako hauek dira:

- Ikerketa eta esperimentazioa, bai materialetan eta bai ekoizpen-tekniketan ere.
- Diseinua, estiloen berritasuna.
- Produktuen lanketa eta akaberaren fintasuna.
- Saria: 350 euro eta Agiria.

Sariduna, lehenengo urte honetan behintzat, azokan bertan zeuden artisauak zuzenean parte hartuz erabaki dute: artisau bakoitzak boto bat izan du, produktu onena aukeratzeko. Irabazlea, ARGIA BAGADO izen komertzialaren atzean dagoen Igor Obeso izan da. Beirarekin lana egiten duen artisau gazte honek, Errenteriako Azokan aski ezaguna denak, kanaberaz puztutako beiraren teknika ikusgarria erabiltzen du gehienbat, bere diseinuzko piezak lortzeko, eta sari honek bere lan-ibilbidean beste maila bat igotzea ekarri dio.



Stand Onenaren Saria, berriz, aurreko urteetako jarraibide bera izan du. Goian esan dugunaren arabera, bere lanbideko lehengaiak edo amaitutako produktuak erabiliz, oro har aurkezpenaren eta kalitate estetikoaren arabera standik onena eskeintzen duen artisauari ematen zaio sari hau. Aurtengo saria, CLOTA izen komertzialeren atzean dagoen Claudia Elizabet Toledo, Portugalete herriko artisaugazteak eskuratu du, goma-espumarekin egindako txotxongilo koloretsuez apaindutako postuarengatik. Azoka honetara lehen aldiz etorritako irabazleak, "harrituta eta pozik" jaso zituen sariaren Agiria eta 250 euroak, azokaren goi-mailako antolakuntza eta kalitatea goraiapatuz. Beti bezala, epaimahia, Gipuzkoako Merkataritza Bazkondeak izendatutako pertsonaz osatu da.

Egindako bidea eta etorkizuna

Errenteriako Eskulangintza Azokak 30 urte bete ditu. Zentzu honetan, arrakasta baten historia adierazten du. Gizarte zibiletik sustaturiko borondatezko gertakari gutxi iristen dira horrelako urteurrenaren ospatzera, eta are gutxiago osasuntsu iristen direnak. Baina urte hauetan guztietan zehar, euskal gizarte-

ren esparru sozioekonomiko eta kulturalaren aldaketa nabarmena izan da. Ondorioz, artisaugaztearen sektorea bera ere ez da garai batean ezagutu genuena.

Orain dela 30 urte, Eskulangintza Azoka, gizarte industrializatu baten garapen joeraren ondorioz baztertua bizi zen mikro-sektore bat agerian ezartzeko asmoz sortu zen. Lehenengo une hartan, artisaugaztearen gainbehera zetorren ekonomiko sektoretzat baino gehiago, kultura eta etnografi ezaugarritzat bat hartzen zen.

Zentzu honetan artisaugaztearen bi publiko multzo uztartu zituen: antzinako ofizioak oraindik oroimean bizirik zituzten nekazari jatorrizko heldu asko batetik, eta artisaugaztearen mundu ezezaguna baina aldi berean "berezkoa" sentitzen zuen hiritar sektore bat bestetik.

Bestalde, garai haietan euskaldunen aisialdiarekin lehian aritzen ziren jolas-kultur ekitaldien testu inguru oso txikia zen, gaurkoarekin alderatuz. Aldi berean, ospatzen hasiak ziren azokaren kopurua urria zen, eta zerbait berri eta ezezaguna zirenez, jende askorentzat erakargarritasun berezia zuten. Faktore hauek guztiek, Errenteriako azokaren arrakasta bultzatu zuten eta aldi berean artisaugaztearen nolabaiteko susperraldi bat ere ekarri. Gainera, kultura eta folklore dimentsio soila gaindituz, Azokaren antolakuntza-taldea artisaugaztearen alderdi ekonomiko eta komertzialari garrantzi berezia ematen hasi zitzaion.

Ondorengo urtetan zehar, antzeko ekitaldiak sortuz joan ziren Euskal Herriko hainbat udalerritan. Artisaugaztearen sektore-ekitaldi gisa baino gehiago, askotan hiritar animazio eremu gisa eta herriko jaien egitarauen osagarri sortuak izanik, horrelako ekitaldi batzuek zabaldu duten irudiak ez du artisaugaztearen eta artisaugaztearen buruzko ideia aberasten lagundu; aitzitik, pobretu egin du. Azken urteotan gainera, Erdi Aroko Azoka deiturikoen fenomeno gehitu zaio, non artisaugaztearen, zirriborro batean, espektakulu soila den merkatu batekin nahastu den.

Hala eta guztiz ere, egia da, azokak oro har, artisaugaztearen ezaguera zabaldu dutela eta ondorioz egoera gorrian zeuden artisaugaztearen batzuentzat, bizibide ez ezik, bere lanean finkatzeko eta ekonomia eta tek-



Jesús Hospitaler





nika aldetik egoera garatzeko aukera eman diela. Eta paradoxa, hauetako zenbait, "artisansa abangoardia" deitu dezakeguna, gaur egun horrelako ekitaldietatik urrunduz, proiektio eta errekonozimendu handiagoko merkataritza eta salmenta bideetarantz jotzen ari dira.

Honekin batera, artisau produktua bera ere asko aldatu da lehenengo garai haietatik. Hasierako lanbide zahar haiek, etnografiko erroak gordetzen zituztenak alegia, desagertzen joan dira, eta ondorioz produktua unibertsalagoa bihurtu da, hau da "jatorri" gutxiagokoa. Ondorioz, egun azoka bat antolatzerakoan, zaila da ikusleek ezagutzen ez dituen lanbide zahar erakargarriak aurkitzea.

Aldi berean, gure herriko eskaintza ludiko-kulturala asko zabaldu da, eta azokek ere egun beretan ospatzen diren mota askotako ekitaldiekin lehiatu beharra dute. Euskal gizartea bestalde, modu ikusgarrian garatu da. Tradiziozko produktu eta lanbiden oroimenak, sorkuntza eta disenuari utzi dio lekua, artisautza eta artea nolabaiteko uztarketara bultzatuz. Uste dugu kontsumitzaileek, artisau produktua ez dutela bere antzinako nortasun edo tradizioagatik baloratzen jadanik, artisautza berekin duen hainbat balorengatik baizik: eskuz egindako bakarkako produktuen giza-balioa, kalitatea, jasagarritasuna, eta abar. Testu inguru honetan artisaua, bere lanbide arauak enpresa konzeptura egokitu beharrean dago profesionaltasuna eta berrikuntza barneratuz, merkatuaren lehia honetan aurrera egingo badu. Eta azokek ere, egokitze eta profesionaltasun hori bera ere behar dute.

Izan ere, faktore hauen guztien egokitze eza, azoken nolabaiteko krisi orokor bat sortzen ari da, aldi berean bide berriak jorratzeko beharra erakutsiz. Eta honetan dihardugu antolatzaileok, Erretereriako Azokak betidanik izan duen aitzindaritzari jarraituz, Euskal Herriko artisautzaren erreferentzia gisa bertako duen ziklo berri baten oinarriak finkatu nahian. Zentzu honetan, gure herriak baldintza onenak betetzen dituela uste dugu, beti ere gure Udalak orain arte egin duen bezala, ziklo berri hau mantendu eta garatzeko apustua egiten badu.

Bukatzeko, ospatu berri dugun XXX. Euskal Herriko Eskulangintza Azoka aurrera eramatea ahalbidetu duten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Lehenik eta behin, parte hartu duten artisau guztiei, bereziki Euskal Herri kanpotik etorri direnei. Eskerrak ere urtez urte azokarekiko fideltasuna erakutsi duten bisitariari, hala nola, bere lana eta ardura jarri duten komunikabide eta beste zenbait zerbitzuei, eta nola ez bere babesa ematen diguten erakundeei: Gipuzkoako Foru Aldundiari, Erretereriako Udalari eta Gipuzkoa-Donostia Kutxari. Bihoakie berriro guztiei gure esker beroena. ■

